AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

737

121/2014EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Jon Antonio Guajardo Remacha jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Galdakao-Usansolo Ospitaleko zuzendari gerente kargutik kentzen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 301/2013 Ebazpenaren bitartez, Jon Guajardo Remacha jauna Galdakao-Usansolo Ospitaleko zuzendari gerentea izendatu zen (apirilaren 15eko EHAA, 71. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jon Guajardo Remacha jauna Galdakao-Usansolo Ospitaleko zuzendari gerente kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2014ko urtarrilaren 30etik aurrera jarriko da indarrean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Galdakao-Usansolo Ospitaleari, Arabako Unibertsitate Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 30a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.